

Martxoak 8



ANTOLATU, IRABAZTEKO

Oarsoaldeko eta Bidasoko emakumeak elkartu egin dira berriz ere Martxoaren 8a edukiz betetzeko. Igandekoa ez da greba eguna, aldarrikapenena bai, ordea #I-VIII

HITZA

2^{mó}
graduatu erreflexuen
aurkako lenteekin / **99€**
(bat eguzkitakoa izan daiteke)





Gure betaurreko guztiak
bilduma berrietakoak dira



Jose M^a Sert 4 - ANTIGUO • Tel.: 943 14 28 17
DONOSTIA
C/ Nueva 15 - GROS • Tel.: 943 32 66 49
DONOSTIA
Koldo Mitxelena 7 • Tel.: 943 51 78 11
ERRETERIA
Mendibil M.G. • Tel.: 943 63 99 01
IRUN

MULTIÓPTICAS

www.multiópticas.com   

Greba egunera deitu ez arren, mugimendu feministak nabarmendu du tokian-tokian eragile izateak emango diela zapalketaren kontrako bidean indarra, «aurten ere kaleak beteko ditugu».

Eraldaketarako, antolaketa

-URKO ETXEBESTE

Aurten Euskal Herrian ez dugunez grebara deitu, gure aldetik ez zintasun edo su-eten bat dagoela ikusarazi nahi dute batzuek. Ez bata eta ez bestea. Borroka feminista beharrezkoa da oraindik». Hitzok Euskal Herriko Mugimendu Feministak esandakoak dira, Martxoaren 8ko lan ildoak aurkezteko egin zuen agerraldikoak. Martxoaren 8a igandearekin egokitu da aurten, eta hori dela-eta grebarako deiak zentzua galduta, argi utzi dute geldialdirik ez dagoela feminismoatik abian dauden borroketan.

Berriz ere nabarmendu dute egungo jendarte eredia «jasangaitza» dela pertsona gehienentzat, «batez ere emakume eta genero disidenteentzat, eta planetarentzat». Eta greba feminista helburua baino, bitartekoa dela nabarmenduta, ahalegin eraldatzailean jarraituko dutela ziurtatu dute, «feminismoan emakumeen autoantolaketa beharra azpimarratzen jarraitzen dugu. Komunitate feminista konprometitu eraiki behar dugu, sare sozialek eragiten duten pasibotasuna gaindituz. Kalleetan eta talde, kolektibo eta asanbladetak antolakuntza feministaren bidez ere presioa egin behar dugu».

Berdintasun formaletik harago begiratzen dute Euskal Herri-



Iaz, Errenteria-Oreretako manifestazio nagusiaren irudia. IKERNE ZARATE

ko Mugimendu Feministako ki-deek, ez dute nahi bertan eta munduan emakumeen esplotazioan sakontzen duen eredu neoliberalik nahi, «tokian-tokian jarduten dugu, planeta osoko gure ahizpa feministekin konektatuta egoteak ematen digun ikuspegi globalarekin».

Feminismoak «hainbeste ahaleginekin» lortutako eskubide sozial zein politikoetan eragin behar duela uste dute, «atzera-pausoari aurre egin behar diogu. Aurrean edukiko gaituzue. Gure

feminismoak eredu zurrunean eta errealtatetik urrun itotzen gaituen gorputzen merkantilizazioa eta binarismoa borrokatzen ditu». Aldi berean, eskuin muturreko indarren mehatxuari feminismo antifaxista aplikatzen erantzungo diotela adierazi dute.

Oarso Bidasoko

Oarso Bidasoko herrietan bat egin dute Euskal Herriko Mugimendu Feministaren irakurketarekin. Herri bakoitzean bere

erara, autonomiaz, baina minimo komunekin. Nabarmentzekoa da Oiartzunen, Pasaian, Errenteria-Oreretan eta Lezon mugimendu feministak eta udal erakundeek bat egin dutela egitarauen antolaketan.

Irunen eta Hondarrribian, emakumeen elkarteek eta udal antolatu dituzte gehienbat ekitaldiak. Bidasoaldeko Asanblea Feministak, bere aldetik, manifestazio ibiltaria egingo du etzi, goizez.

uetxebeste@hitza.eus

Goizean bildu, eguerdian aldarrikatu, bazkaldu, eta hiriburura

-U. ETXEBESTE

Igandean izanda, eguna irudikatzeko planteamenduari bira eman diote Oarsoaldeko eta Bidasoko feministek. Aurreko bi urteetako Martxoaren 8ko egitarauak berrikusi, eta jaiegun batera egokitu dute. Oarso Bidasoko herrietako egitaraua, etziko eta gainontzeko egunetako, eskuineko koadroan dago.

Horrela, goiza biltzeko erabili dute etzi kalera aterako direnek askotariko jarduerekin; eguerdian mobilizazio jendetsuenak izango dira gurean, eta bazkari antolatu-autogestio-tuetan (tuper bazkariak) izan ondoren, arratsaldean Donostiako herrialdeko manifestaziorekin bat egingo dute emakumeek.

Eguerdian mobilizazioak Antxon, Oiartzunen, Errenteria-Oreretan eta Irunen (bertatik hasiko da Bidasokoa) egingo dituzte. Azken honetara joango dira Hondarribiko emakumeak, herri harresituan bukatuko delako Bidasoko martxa. Errenteria-Oreretakora, berriz, Lezoko lagunak ere joango dira. Eguerdiko martxen ondoren, era batera edo bestera, bazkaltzera bilduko dira emakumeak.

KOLDO MITXELENA
HERRI IKASTETXEA

Berdintasuna amets

KOLDO MITXELENA
HERRI IKASTETXEA

Fernandez de Landa z/g Errenteria-Orereta
943 51 43 72 · 012905aa@hezkuntza.net
www.koldomitxelenaikastetxea.com

M8ko egitarauak

IRUN

Gaur. 17:30ean, *Estereotipoak ebakiz* tailerra, Martindozenean; 18:00etan, *Se vende una mula* antzezana, Uxoa elkartearen; 20:00etan, *Sua, irabazi arte* dokumentala, Amaia KZn.

Etzi (Martxoak 8). 11:30ean, M8 Bidasoko Asanblea Feministak manifestazioa Santiago zubitik hasita. Handik Iparralde etorbidera abiatuko dira manifestariak, Colon pasealekua zeharkatu eta Hondarribirantz abiatuz; 11:45ean, elkarretaratzea San Juan plazan, *Egunero izan beharko luke Martxoak 8* lelopean

Hilaren 9tik 15era. Haur txokotako haurrek egindako lanak ikusgai Laboral Kutxarean erakusketa aretoan.

Hilak 9. 17:00etan, hitzaldi-solasaldia Uxoa elkartearen; 18:00etan, Carmen Alborchen omeneko bideo proiektzioa (Bidasoko Elkarte Feminista), Behobiako Gizarte Zentroan.

Hilak 10. 17:00etan, solasaldia San Miguel auzoko Gizarte Zentroan (Bidasoko Elkarte Feminista); 19:00etan, *Mujeres, casas y ciudades* liburuaren aurkezpena, CBAn.

Hilak 11. 17:00etan, *Una vida entre pinceles* hitzaldi-solasaldia Uxoa elkartearen; 17:00etan, *En las ramas de la historia* poema emanaldia Argoiak elkartearen.

Hilak 12. 19:00etan, Emakumeen Ahotsa III. zikloaren hitzaldia, Palmera Montero Gunean (Gaurko Andreak).

Hilak 13. 19:00etan, hitzaldi solasaldia (Bidasoko Elkarte Feminista), Palmera Monteron.

Hilak 14. 17:00etan, bideoforoa eta solasaldia (Bidasoko Elkarte Feminista), Behobiako Gizarte Zentroan.

Hilak 18. 17:00etan, *5 horas con Mario* antzerkia, Argoiak elkartearen.

Hilak 19. 19:00etan, Emakumeen Ahotsa III. zikloaren foruma, Oiasso Museoan (Gaurko Andreak).

HONDARRIBIA

Etzira arte. Hondarribiko emakume artisten erakusketa Arma Plaza informazio gunean.

Gaur. 17:30ean, lau eta zortzi urte arteko umeei zuzendutako ipuin kontaketa egingo du Lur Kortak Emeki elkartearen egotzian. Ondoren txokolatada egingo dute.

Bihar. 11:00etan, Emakumeen V. Pala Txapelketaren finala Sorotako frontoian; 17:30ean, *Rake-*

tistik lehen eta orain dokumentala Itsas Etxean.

Etzi (Martxoak 8). 10:45ean, elkarretaratzea Emeki elkartearen egoitzaren kanpoaldean. Ondoren, Irunen deitutako Bidasoaldeko manifestazioarekin bat egingo dute, San Juan plazan; 11:30ean, manifestazioa Irungo Santiago zubiko Hendaiako aldetik, Irun zeharkatu eta Hondarribiko Zumardira iristean, Arma plazara igo eta Portura joango dira parte hartzaileak. Manifestuaren irakurketarekin amaituko da manifestazioa, Arrantzale auzoan; 13:40ean, manifestazioa amaituta, Arma plazarantz abiatuko dira kalejiran; 14:00etan, tuper bazkaria Arma plazan bertsoarietik eta Uikan dantza taldeak giritutako otorduan; 18:00etan. Donostiako manifestazioan parte hartzera deitu du Bidasoko Asanblada Feministak.

LEZO

Etzi (Martxoak 8). 11:30ean, elkarretaratzea Gurutze Santuaren plazan eta argazki erraldoia. Ondoren, Erretereria-Oreretako eskualdeko manifestazioarekin bat egingo dute, (12:30ean da).

Hilak 14. 19:30ean, tuper bazkaria Saldise plazan.

Hilaren 9tik 14ra. Gaxuxako kideen lanekin erakusketa Kultura Aretoran.

Hilak 14. 19:30ean, Gezalan, *Kabi biluziak* dokumentala.

Hilaren 23tik 28ra. *Todas somos todas* Agnes Piñolesen panpinen erakusketa Kultura Aretoran.

Maiatzak 9. 18:30ean, Gezalan, *Vuelta a casa de mi madre* ikusentzuzkoa eta hizketaldia.

OIARTZUN

Bihar arte. Heltaren erakusketa Manuel Lekuona bibliotekan.

Etzi (Martxoak 8). 10:00etatik 11:30era, material sorkuntza tailerra; 11:30etik 12:15era, *Bortxatzaile bat zure bidean* dantzaren entsegua; 12:15ean, dantzaren grabaketa; 12:30ean, manifestazioa, plazatik hasita; 14:00etan, bazkari autogestionatua, plaza; 15:30ean, bakarrizketa feminista Mirari Martiarenaren eskutik; 16:55ean, autobusa hartuko dute, Donostiako manifestaziora joateko.

ERRETERERIA-ORERETA

Bihar. 11:30ean, Emakumeen Etxean, X. Mariasun Landa sariaren banaketa eta Dejabu antzerki konpainiaren *Fikzioa berterai* performancea (12:30ean).

Etzi (Martxoak 8). 10:00etan, Zirika Neska Taldekoak murala egiten hasiko dira Herriko Plazan; Emakumeen pala jaialdia, 10:30ean Agustina Otaola frontoian; 12:00etan, manifestazioa, Herriko Plazatik abiatuta; 14:00etan, bazkaria Merkatuzarren. Ondoren Donostiako manifestaziora joango dira.

Hilak 13. Irrintzi tailerra, 18:00etatik 20:30era, Emakumeen Etxean.

Hilak 17. Dokuforuma, *Erroa eta geroa*, 18:30ean, Emakumeen Etxean.

Hilak 28. Etxeko Langileen III. Festa, 12:00etan, Emakumeen Etxean.

PASAJA

San Pedro.
Hilaren 9ra arte. *Izan zirelako gara eta garelako izango dira* argazki erakusketa liburutegian, San Pedroko emakumeak taldeak antolatuta. **Etzi (Martxoak 8):** *Emakumeak plazara, ohol-tzara!* ekintza kolektiboa, frontoian, 10:00etan.

Trintxerpe.
Bihar eta etzi: 10:00etan, sorkuntza kolektiboko murala, *Iku-siko ahal gaituzte*, Trintxerpeko pistetan. **Hilak 9:** 18:00etan, alkateordetzan, ipuin kontaketa jabetza eskolako kideen eskutik.

Hilak 14: 10:00etatik 13:00etara, alkateordetzan, *Elkarrekin dantza* komunitarioko tailerra.

Donibane.
Bihar: 12:00etan, Amuaren atarian, *Sareak ehuntzen, emakumea eta itsasoa* hizketaldia Edurne Salaberri saregilearekin eta Idoia Lizeaga bitxigilearekin; Bixi Bixi elkartearen, 14:00etan bertso bazkari musikatua, eta 16:30ean berdintasunean oinarritutako euskaraokea haurrekin. **Etzi (Martxoak 8):** 10:00etan, Bixi-Bixin, *Ez arrox ez urdin, txokolatea denon kolore* jarduera haur eta nerabeentzat.

Hilak 26: arratsaldean, Ubera liburutegian, *Emakume saregileak* mahai-ingurua eta argazki erakusketa.

Antxo.
Bihar eta hilaren 14an: Bekoz Bekoren egotzian, 10:00etatik 13:00etara, autodefentsa tailerra. **Etzi (Martxoak 8):** 11:00etan, muntai eta apaintze lanak barrutitik zehar; 12:00etan, brindisa egingo dute; 12:30ean, manifestazioa; 13:30ean, muxikoak; 14:30ean, Bazkaria norberak eramandakoarekin. Ondoren: bingofeminista, kantaldia, txotxongiloak, kalejira erraldoia. **Hilak 27:** Bekoz Bekon, 18:00etan, *Zauriak* dokumentala.

Lete
itzulpenak
www.lete.net
administrazioa . publizitatea
liburuak . enpresa
Tel.: 943 515 346 . www.lete.net . lete@lete.net

Oiartzo
IKASTOLA
MARTXOAK 8
Emakumeen Nazlearteko eguna
etorkizunerako bidelagun
Ezberdinak izanik, parekide bizi
943 523 804
oiartzo@ikastola.eus
www.oiartzoikastola.eus

MAITEXA
TABAKOAK-OPARIAK
Bizente Elizegi, 3 . Erretereria . 943 51 21 10

KABALA
etxe - animalientzako pentsu eta osagarriak
943 53 57 51 / 605 76 52 14
Erdiko kalea 16. Erretereria. kabaladenda@gmail.com

CIFP DON BOSCO LHII
DON BOSCO ALDEA LAN HIRIA
20100 Erretereria
Tel.: 943 510 450
donbosco@fpdonbosco.com
www.fpdonbosco.eus
PAPER KALEA, 1
20400 Tolosa
Tel.: 943 672 900



Mobilizazio kanpaina berria abiatuko dutela ziurtatu dute langileek. HEGOI BELATEGI

Emakumeek bizi duten prekarietatea Gipuzkoako erresidentzietako langileengan gorpuzten da. 2018ko irailean hasi zituzten lanuzteak, eta ordutik, ez zaio bide eman haien aldarrikapen bakar bati ere.

Duintasuna lortu arte, tinko jarraituko dute langileek

-HEGOI BELATEGI
Errenteria-Orrereta

Ukaezina da Gipuzkoako erresidentzietako langileek borrokarako erakutsi duten grina; dagoeneko 230 greba egun baino gehiago egin dituzte. Urtebete baino gehiago lan gatazka hasi zenetik —2018ko irailean hasi ziren lanuzteak— eta hiru urte negoziazio mahaia osatu zenetik. Era berean, ukaezina da Gipuzkoako Foru Aldundiak gaiari muzin egin diola modurik agerikoenean, greba hasi zenetik ez baita ezer aldatu langileen egoeran, ezta adinekoenean ere. Ez

zaio biderik eman langileen aldarrikapen bakar bati ere.

Sanmarkoseneko erresidentzian ELAko ordezkari den Feli Alvarezek argi du prekarietatea lan sektore feminizatuei lotua dagoela, «badirudi gizonak gehiago diren sektoreetan lan gatazka azkar konpontzen direla. Gure kexuei, ordea, ez diete kasurik egiten eta ez soilik erresidentzietako langileei; garbitzailerekin, edo etxeko zaintzailerekin, utzikeria berbera pairatzen dute». Utzikeria hori betiko aurreritzi matxisten ondorio baino ez dela dio Miren Riberak, Oiartzungo Petra Lekuonako langileak: «Kontutan hartu be-

har da, duela gutxira arte ama eta amonak arduratzen zirela zaintza lanetaz, gainera, doan. Politikari askorentzat egiten dugun lanak ez du merezi, eta nahikoa dugu diru pixka bat irabaztearekin. Matxismo hutsa da, baina hortxe dago». Alvarezen iritziz, zaintza lanetan jarduten duten emakumeena, «senarren soldataren gehigarritzat» dute askok, soldatek ez baitute ematen bizimodu independente eta duin bat aurrera eramateko.

Prekarietatea eta generoa lotuta daudela agerikoa da erresidentzien sektorean; Sanmarkosene, Petra Lekuona edota Irunngo Ama Xantalen egoitzetan

plantillaren %90 a baino gehiago emakumeak dira, eta horien artean heren batek 1.000 euro baino gutxiago irabazten dute hilabetean. Horrez gain, ordutegi aldakor eta finkatugabeak di-

Erresidentzietako langileen %90a baino gehiago, emakumeak dira gaur egun

tuzte, eta gainera, gehiegizko lan karga. Errealitate honen atzean, sektorearen pribatizazioa dago langileen arabera, «edozein murrizketa egiteko prest daude etekinak lortzeko, hori baita enpresa baten helburua», salatu du Feli Alvarezek. Caser aseguru etxeak, besteak beste, Gipuzkoako adinekoen zenbait egoitza kudeatzen ditu.

Hitzarmen kolektiboa

Erresidentzietako langileen helburu nagusietako bat hitzarmen kolektiboa lortzea da, langile guztiak legedi beraren azpian biltzeko. Izan ere, gaur egun langileen egoera bestelakoa da kontratuaren, erresidentziaren eta hura kudeatzen duenaren arabera. Loli Santos Irungo Ama Xantalen egoitzako ELAko ordezkariaren kasua argia da: «Oraintxe bertan sei langile gaudere greban, denok azpikontratakoak gara. Beste batzuk Irungo

Udalaren langileak dira, eta haien lan baldintzak hobetoak direnez, ez dute grebarekin bat egiteko beharrik». Orain arte Irungo Udalak kudeatu du Ama Xantalen, baina aurten Kabia Foru Aldundiko organismoaren menpe geratu da.

Iturri ekonomikok berbera duten arren —gipuzkoarren diru publikoa— askotariko kudeatzaileak daude; Sanmarkosene Gureak-ek kudeatzen du, eta Matiak Petra Lekuona. Bertako egoera bereziki larria iruditzen zaio Miren Riberari, behin-behinekotasuna erabilgarritasun orduz mozorrotzen baitute, «lanaldiaren parte bat finkoa dugu eta beste zatia erresidentziaren beharrezko arabera. Hau ere emakumeok gehiago garen sektoreetan baino ez da gertatzen». Honen arabera, langile batek ordu finko batzuk baino ez ditu izango; besteak erabilgarriak dira eta hori jakin ezinik, erresidentzien esanetara daude beti langileak. Hau da, langile finkoek behin-behinekoren papera betetzen dute eta bide batez, enpresak ez ditu kontratazio berririk egin behar.

Beste hamaika aldarrikapen dituzte erresidentzietako langileak. Ez diote udaberri lasaia emango aldundiari. Gaur, 11:00etan, Kursoalen entzungo dituzte.

hbelategi@hitza.info




Berdintasunean bizitzeko bidean

elatzeta
IKASTETXEA

www.elatzeta.eus

Araba kalea, 44 20305 Irun / idazkaritza@elatzeta.net
Tel.: 943 93 77 59





Ziprztindu
Lezo
MOREZ

(Martxoaren 2tik 8ra)

Ekiñe Ramos eta Laia Urretabizkaia Zirika Neska Talde sortu berriko kide dira. Euren jardunaz eta M8ra begira dituzten asmoez mintzatu dira HITZArekin.

Neska gazteak, zirikatzen prest

-MIKEL DEL VAL
Errenteria-Oreterra

Martxoaren 8a, Emakumeen Eguna, gainera da, eta Errenteria-Oreterako eragile feministak azken prestaketa lanekin dabilta igandean kaleak aldarriz betetzeko.

Lanean gogor ari den eragile feministetako bat Zirika Neska Taldea da. Hasiberriak dira, due-la hiruzpalau hilabete hasi zuten euren jarduna, eta igandekoa

izango dute lehen Martxoaren 8a. Ilusioz eta gogoz ari dira. Ekiñe Ramos eta Laia Urretabizkaia Zirika Neska Taldeko kide dira, eta taldearen nondik norakoez eta Martxoaren 8rako dituzten asmo eta helburuez mintzo dira HITZA-rekin. Argi eta ziur hitz egiten dute.

Zirika «Errenteria-Oreterako neska gazte feministez osatutako taldea da», zehaztu du Ramosek. Eragile feminista hau herriko neska gazteen jarduna uztartzeko sortu da. «Bakarrik jende gaztea biltzen gara. 16 eta 20 urte

bitarteko neskek gaude taldean. Beharra ikusten dugunean biltzen gara lanerako. Gure ustez, bide onetik goaz», konfirmatu dute neska gazteek.

Errenteria-Oreteran bada talde feminista bat, baina Zirikako kideek ere euren ekarpena egin nahi izan dute, «neska gazteak elkartu, mugitu eta feminismoa sustatzeko». Adierazi dute talde feministako jendea helduagoa dela, eta batzuetan arrotza egiten zaiela haiengana bakarrik joatea. «Guk argi genuen neska gazteak elkartu behar ginela herrian mugitzen hasteko. Horregatik sortu dugu taldea», eutsi du Urretabizkaia.

M8ko jarduerak, prest

Zirika Neska Taldeko kideak mobilizatuko dira, eta euren ekarpena egingo diote Errenteria-Oreterako Martxoaren 8ari. Horretarako, zenbait jarduera prestatu dituzte euren jarduna bistaratzeko. «10:00etatik 11:45era Herriko Plazan jarriko gara eta gure logoaren margoketa egingo dugu. Hamaiketako

txiki bat ere prestatu dugu bertaraten den jendearentzako. Horrez gain, txapa batzuk ere egin ditugu igandean bertan saltzeko. Ondoren, manifestaziora batuko gara», dio Ramosek.

Mobilizaziorako dei argia egin dute neska gazteek, Martxoaren

8a aldarriz betetzeko. Zirikatzen jaito dira, eta zirikatzen jarraituko dute. Lehen Emakumeen Egunean gogoz jardungo dute, euren ikuskera eta esperientziatik egunari, eta Errenteria-Oreterako mugimendu feministari ekarpena egiteko.

TELLERI-ALDE IKASTETXEA
COLEGIO SAGRADO CORAZON
Hermanos del Sagrado Corazón



Berdintasuna
bihotzetan landatzen

- 2 - 16 urte
- Hirueledun
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Jangela (bertan prestatutako janaria)
- Haurtzaindegia 07:30etik 09:00etara
- Mendi taldea • Eskola kirola • Sputnik aisialdi taldea


Bittor Idiazabal, 1 20100 Errenteria (Gipuzkoa)
Tel.: 943 51 12 33 . Faxa: 943 51 20 95 . www.tellerialde.com

La coquine deco



la coquine
Dekorazica
eta opari bereziak

Santxoenea 21, Errenteria
943 905 774 • 610325416



Zirika Neska Taldeko Ekiñe Ramos eta Laia Urretabizkaia. MIKEL DEL VAL

Berdintasuna, ekintzailtza eta berrikuntza dira gure gakoak

PLAIAUNDI
INSTITUTUA



Plaiaundi z/g. 20301 IRUN - Tel.: 943 89 92 14
www.plaiaundi.hezkuntza.net
info@plaiaundi.eus



orereta ikastola
AURRERA!

EZBERDINAK IZANIK, PAREKIDE BIZI

Martxoak 8: Emakumeen Nazioarteko Eguna

www.oreretaikastola.eus



«Arazo ugarirekin tartean, baina proiektua hasi eta bukatu nuen»

MARI CARMEN IRURETAGOENA JAIZKIBEL KANPINAREN SORTZAILEA

Ekintzaile eta borrokalaria, kanpina hutsetik sortu zuela berrogei urte bete dira aurten. Egindako ahaleginari aitortza berezia eskaini dio Emekik Emakumearen Astean.

-REBEKA RUIZ Hondarribia
Emekik Emakumearen Aste
omendu gisa aukeratu zaitu
aurten, zergatik?

Ekintzailea izan nintzen eta dirudenez gainontzeko emakumeentzako adibide bat naiz horregatik. Arazo ugarirekin tartean, baina proiektua hasi eta bukatu nuen, eta oraindik ere funtzionamenduan dago. Oso zaila izan zen nik ez nuelako kapitalik, nire senarraren soldata besterik ez nuen, eta hori galtzar ginen ere. Mugako behargina zen, eta langileak kaleratzen ari ziren garai horretan. Azkenean nik ere lan egin behar nuela erabaki nuen. Borroka latza izan zen hasieran, etxeko guztiok lan egiten genuen, soldatarik jaso gabe trukean noski. Aurrezki kutxari ordaindu behar genion eta interesak oso altuak ziren. Berrogei urte pasa dira dagoeneko.



REBEKA RUIZ

Emekiko kideei esan nien nik ez nuela errekonozimendurik merezi, nik ez nuela hori herritarrengatik egin, nire familiarengatik egin nuela baizik.

Nolakoak izan ziren hasierako urte horiek?

1980ko hamarkada zen, eta denak nire senarraren sinadura behar zuen lehenbizi. Egia esaten badizut ez dakit zein momentutan baimendu zitzaigun emakumeoi izapideak eta kredituak guk eskatu ahal izatea. Gu pixkanaka joan ginen kanpina handitzen, goialdean zeuden zelai batzuk bereganatuz. Zati txikiak ziren arren, horiek guztiak elkarrekin guretzako oso garrantzitsuak ziren kanpinaren mapa osatu ahal izateko.

Zergatik erabaki zenuen kanpin bat egitea?

Garai hartan ez zegoelako kanpinik Hondarribian, farolakoa oraindik ez zen existitzen. Hala

“

«Borroka latza izan zen, etxeko guztiok lan egiten genuen soldatarik jaso gabe»

«Ez omen nintzen kanpin bat eraikitzen saiatu zen lehenbiziko herritarra»

ere, ez omen nintzen kanpin bat eraikitzen saiatu zen lehenbiziko herritarra, baina ez dakit zergatik, besteek ez zituzten baimeak lortu. Aldaketa politikoa ematen ari zen. Udala gizonek osatutako gestora baten esku ze-

goen eta bertan Jose Manuel Garmendia zegoen, izugarri lagundu zidan prozesu hartan.

Garai hartan Hondarribian zegoen turismoa oso bestelakoa zen. Etxe handietara joaten ziren udatiarrak zeuden, eta herriko janari denda guztiak haien zain egoten ziren erosketak etxeko atariraino eramateko zain. Gauzak aldatzen joan ziren eta turismoa iberiar penintsulan hazten joan zen. Afrika iparraldeko eta Bosniako gerren ondorioz jendea penintsulan gelditzen zen. Eta gainera, prezio ona eskaintzen genuen. Geroz eta jende gehiagok turismoa egiten zuen eta beraz, denontzako adina eskaintza egotea ezinbestekoa zen.

Borrokalari bat zara?

Amak bost anai-arrebei borrokatzen irakatsi zigun. Gerraren garai gordinenak bizi zituen eta denari aurre egiten zion. Izugarri lan mordoa egin zuen, baina nekaezina zen. Garai zailenetan jendeak daukana baino askoz gehiago ematen duela dirudi.

Hondarribian jaio zinen?

Ez. Zenbait komunikabidetan Madrilgoa naizela publikatu dute, baina hori ez da egia. Nire aitak timbre eta moneta fabrikari lan egiten zuen, eta leku batetik bestera eramaten zuten. Aita Irungoa zen eta ama Madrilgoa, baina nire jaiotzak Castellon de la Planan –Herrialde Katalanak– harrapatu zituen. 1938an bonbardaketa baten erdian jaio nintzen, eta nire ama gaixoak zaku bat jantzi zidan ez zuelako beste ezer ni jantzi ahal izateko. Bi ahizpa helduago nituen. Hala ere gure ama ni hil egingo nintzela ziur zen. Izan ere, ez zuen ezer jateko eta titia ere ezin zidan eman esnerik ez zuelako. Baratzuri zopak eman behar izan zizkidaten jaioberritan, eta begira, hemen jarraitzen dut. Ez zait hain gaizki joan, ezta?

rruiz@hitza.es

OLH PASAIA FPB
ITURGINTZA - SUKALDARITZA
Oinarritzako Lanbide Heziketako ikastetxea
15 urtetik aurrerako gazteentzako eskaintza
Gure gazteak berdintasunean hezten
Bidasoakalea 1-3 - Trintxerpe - PASAIA
Tel.: 943 40 48 94 - www.fpb-olh.pasaia.org

PASAIA - LEZO
LIZEOA
Gizarte parekidea eraikitzen, egunero

Maria Zapatak depresioa ikertu du, antropologia eta feminismitik. Depresioa pairatzen dutenen bi herenak emakumeak dira, eta genero arrazoiak aztertu dituzte, zeintzuk diren jakiteko.

Begirada more bat depresioari

-ERIK GARTZIA Oiarzun

Maria Zapata ikerlariak aitortu duenez, ez da ohikoa depresioa ikuspuntu antropologiko batetik ikertzea. Berak, hala ere, horrela egin du: iaz aurkeztu zuen tesia EHUen. Bertan jasotakoari errepasoa eman zion duela aste pare bat Oiarzunen, buru gaixotasunak feminismitik jorratu zituzten jardunaldietan.

Ondorioak atera baino, depresioa hain feminizatua egoteak zerk eragiten duen aztertu du Zapatak. Horretarako, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako zein Kataluniako gizon-emakumeak elkarriketatu zituen. «Zergatik eragiten die gehiago emakumei? Sistema heteropatriarkal batean bizi garela», ebatzi du Zapatak. Arrazoierik egotearen azpian egunerokoa gertatzen diren hainbat faktore zerrendatu ditu, emakumei gehiago eragiten dietenak: «Zaintza lanetako gaitzakeria; lan prekarietatea; pobretzea; indarkeria matxista (bortxaketak, tratu txarrak, mehatxuak)... Hori guztia gizonak gutxiago pairatzen dute, eta sufrimendu hori depresioan bilakatzen da». Azaldu duenez, faktore askok bat egiteak ahalbidetzen dute buru gaixotasuna agertzea.

Bere ikerketaren arabera, kasuen %95ari irtenbide farmakologikoa ematen zaie: psikofarmakoak errezetatzen dituzte. Psikoterapia eskaintzen dutenak gutxi dira. «Irtenbide farmakologikoa askoz merkeagoa da, eta industriaren lobbya oso indartsua da. Osasun publikoarentzako *Tratamendua*», gaineratu du. Nabarmendu duenez, antsiolitikoak eta antidepressiboak dira familia medikuek errezeta ditzaketen bakarrak.

Subjektu buruaskia

Zapataren iritziz, gaur egun gauzak gehiegi medikalizatzeak jobera dago. «Gure sufrimendua gehiegi medikalizatzen dugu garai hauetan. Depresioak dolu garaien antzekoa da. Kontua da depresioa luzatu eta larriagotu egiten dela». Adibide batekin islatu du: norbait alarguntzen denean, sendagilearengana joan daiteke, eta han antsiolitikoak jaso ditzake, dolua pasatu behar den egoera bat denean.

Depresioa eramaten duen beste faktoreetako bat da duela hamarkada batzuk gizarteak sortu zuen subjektuarena: «Subjektu horrek beti egon behar du prest; buruaskia izan behar du;



Maria Zapata Psikologia eta Antropologian lizentziaduna da. HITZA

inor inguruan eduki gabe edo zurrerara eramateko gai izan behar du... Ezin duzu zure sufrimendua erakutsi, ahultasun baten seinale izan daitekeelako. Hori guztia, errealitatean, gezurra da: batzuk bestearen babesa

Ikerketan parte hartu dutenen sendatzeko teknikak jaso ditu Zapatak

ren beharra dauka; autonomo izan gaitezke, baina ez buruaski; minak partekatu behar ditugu, bestela mina bikoitzen da».

Ikerketan gaixotasuna bera ikertzeaz gain, errekupezioa ere kontuan hartu du Zapatak. Nabarmendu du depresiotik errekupeira daitekeela, eta hori erakutsi diotela elkarriketatu dituen pertsonen. Sendatzeko zein estrategia erabili dituzten jaso ditu. Depresioa indibiduala ez dela esan du, kolektiboa baizik. «Protagonista nagusia pertsona bakarra izan daiteke, baina ikerketan parte hartu zuen pertsona batek esan zidanez, bakarririk ezin zara atera».

Depresioa sendatzeko bidean, hiru irtenbide tipifikatu ditu Zapatak. Alde batetik, botikak. Esan duenez, psikofarmakoak baliagarriak izan daitezke, baina kritikatzeko irtenbide bakar gisa eskaintzen dituztela. «Batuztetzako», zehaztu du, «oztopo bat izan daitezke sendagai horiek». Bestalde, psikoterapia dago. Ikerlariaren esanetan, depresioa pairatzen dutenei mesede egiten die.

Azkenik, osasun publikoak eskaintzen dituen irtenbideetatik harago, paziente bakoitzak bere aldetik bilatzen dituenak

ikusi ditu ikerketan. Azaldu duenez, depresioa jasan dutenek gorputza erabiltzen dute sendatzeko bide horretan. Ezinbestekotzat jo du: «Elkarrizketatu guztiek gorputzarekin zerikusia duten jardueran jarri zituzten martxan: kirola egin; artisautza edota artea —abestu, dantza egin...— egiten hastea; new age jarduerak (pilates, yoga); sexu harremanak edukitzea; beste pertsonekin hitz egin edo komunikatzea; dutxatzea; makillatzea, txangoak egitera joatea... Gauza asko, pertsona bere gorputzarekin konektatuko dutenak».

Horrez gain, hurkoaren laguntza beharrezkoa da: «Bikotekideak, senideak, lankideak, auzokideak... Horiek denek laguntza ematen digute, batzuek informatiboki bada ere. Adibidez: *Joga eskolara joango naiz, zergatik ez zara nirekin etorriko?*. Logistikoki ere bai: lau hilabete daramatzazu lanik egin gabe, eta ezin baduzu etxebizitza ordaindu, beste batek ordaintzen dizu; edo zure haurrak zaintzen dituzte».

Azkenik, babes emozionala dago: depresioa jasaten ari dena animatzea, eguneroko telefonoz hots egitea... «Horrek argi eta garbi uzten du ez garela buruaskiak. Elkar zaindu behar dugu lehiakortasuna sustatzen den mundu honetan».

Ikasgelan egunero urratsak berdintasunaren alde



CRISTOBAL GAMON

Sorgintxulo 6, 20100 Errenteria-Oretea
Tel.: 943 51 22 98
www.cristobalgamonli.hezkuntza.net
zuzendaritza@cristobalgamonli.eus



Zinegoak 2020
www.zinegoak.com
Bilboko Gayleskiltam 17. Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenaren Jaialdia

OIARTZUN
PLENO ARETOA
Martxoak 13
19:00




IRUNGO HARRERA SARRERA

–IMANOL SAIZ Irun

Uda honetan bi urte beteko dira herritarrek Irungo Harrera Sarea sortu zutenetik, Europa iparralderako bidean diren migratzaileei harrera egin eta babesa eskainiz. Ordutik, 15.000 lagun inguru artatu dituzte boluntarioek, horietatik 1.000tik gora emakume.

Migratzaileek bidaia luze bezain gogorra egiten badute, emakume migranteen egoera are eta latzagoa dela ozen oihukatu dute maiz sareko kideek, zeharo ezberdina. Mila bider salatu dute emakumeek bidaian jasan behar izaten dituzten gehiegikeri eta astakeriak. «Emakume izateagatik soilik gizona koek ordaintzen ez duten prezio bat ordaindu behar dute emakumeek, oso altua gainera», zehaztu du sareko kide Josune Mendigutxiak. Ordu asko pasatu ditu irundarrak emakume migratzaileekin eta hauek zama handia daramatela baieztatu du. Europara bakarrik heltzen direla dio, bikoterik gabe, baina haurdun gehienetan, edo alboan seme-alabak dituztelarik. Bidaide dituzten gizona koek ere emakumeek pairatutakoa oso gogorra dela baieztatzen dute, sarekoen arabera.

Bidaian jasan beharrekoa gogorra bada, hona heltzean ere zailtasun ugariarekin egiten dute topo emakume afrikarrek. «Irun azken geltokia da beraientzat, baina hemen ere arriskuan daude, bakarrik geratzen baitira kalean». Horren harira, urtarilean gertatutakoa salatu nahi izan du Mendigutxiak. 23:00etan emakume bat kalean eta euripean uztea leporatu dio Gurutze Gorriari, Irungo bitartekoa erabiltzeko baldintzak betetzen ez zituelako. «Esplikazio bila joan nintzen eta ez zidaten ezer esan, gaua gurekin pasatu zuen», dio amorrutz, sareko boluntarioak.



Afrikatik Europa iparralderako bidean diren migratzaileen egoera zaila bada, emakumeek pairatu behar izaten duten errealitatea gogorragoa dela berretsi du Irungo Harrera Sareak. 2018tik 1.000 emakume inguru artatu dituzte.

Bidaia bezain zama handi eta astuna

Hona heltzen diren lehen unetik haiek harremana estutzea oso zaila dela aitortu du Mendigutxiak. «Ez dute ezer hitz egiten, ezer kontatzen», dio. Jarrera horiek emakumeek jasan dituzten mehatxuen ondorio direla argi dute sareko kideek. Gainera, egunetik egunera emakumeek desagertu egiten direla kontatu du. Gurutze Gorriaren bitartekoa erabili eta goizean goiz berriz ere bidetara ekiten diote emakumeek, gizonezkoekin hori gutxitan gertatzen da. Bidasoa ibaian pasatzea da euren helburu bakarra, eta hau ere «modu oso berezian» egiten dutela dio Mendigutxiak, nola egiten duten esan nahi izan ez duen arren.

Irun bidaiaren azken geltokia izan arren, hemen ere arriskuan daudela dio sareak

Emakumeak bakarrik heltzen dira, gehienetan haurdun edo seme-alabekin

Eta behin muga pasata, bizitza prekario berri bati egin behar izan ohi diote aurre gehienek. Zaintza lanak, etxeko lanak, esplotazio sexuala... «Ez dakigu ziur non amaitzen duten, baina gehienek ez dute espero zutena aurkituko, ezta gutxiago ere».

Pasanteak Irunen

Migratzaile asko bidaia euren herrietan ordaintzen hasten direla azaldu du sareko kideak, bertako mafia handien menpe. Baina hemen ere, Irunen, migrazioarekin dirua ateratzen duten herritarrek badira. Diruaren truke Irun eta Hendaia arteko muga pasatzea eskaintzen diete migratzaileei. Muga pasatzeko zortea izan ez dutenekin topo egin dute maiz boluntarioek, eta egoera horien berri izan dute, haien amorrurako, «gehiagian».



EGUZKITZA HLHI

PROIEKTUETAN OINARRITUTAKO HEZKUNTZA ESKAINTZA BERRITZATZAILEA ETA INTEGRATZAILEA



baikara
Gijuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioa



KALITATEA HEZKUNTZAN

Berdintasunean hezten

